

AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EMANDAKO URTEKO KONTUEN AUDITORIA-TXOSTENA

ATHLETIC CLUBEKO ZUZENDARITZA BATZARI

Iritzia

ATHLETIC CLUBeko urteko kontuak ikuskatu ditugu, zeinak honako hauek hartzen baitituzte barne: 2023ko ekainaren 30eko balantzea, galera eta irabazien kontu-orria, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion memoria.

Gure iritziz, honi atxikita doazen urteko kontuek ATHLETIC CLUBaren ondarea eta egoera finantzarioa islatzen dituzte, alderdi esanguratsu guztietan, 2023ko ekainaren 30ean, baita data horretan amaitu den ekitaldiari dagozkion haren emaitzak eta diru-fluxuak ere, aplikatzekoa den informazio finantzarioarako arau-esparruarekin bat etorrira (memoriaren 2. oharrean zehaztuta dago zein den), bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideekin.

Iritziaren oinarria

Espanian kontu-auditoriaren jarduera arautzen duen indarreko arautegiaren arabera egin dugu auditoria. Arautegi horren arabera ditugun erantzukizunak beherago daude zehaztuta, gure txosteneko *Urteko kontuen auditoriarekiko auditorearen erantzukizunak* atalean.

Sozietatearekiko independenteak gara, etika-eskakizunekin bat etorritik, baita kontu-auditoriaren jarduera arautzen duen arautegiaren arabera Espainian urteko kontuen gure auditoriari aplikatzekoak zaizkion independentzia eskakizunekin ere. Ildo horretan, ez dugu kontu-auditoria ez den beste zerbitzurik eman; era berean, aipatutako arautegian ezarritakoaren arabera, inongo egoerak edo inguruabarrek ez dio eragin eduki beharreko independentziari, ezta hura arriskuan jarri ere.

Gure iritzia emateko oinarri nahiko eta egoki deritzogu lortu dugun auditoria-ebidentziari.

Auditoriaren alderdirik garrantzitsuenak

Auditoriaren alderdirik garrantzitsuenak hauexek izan dira: gure irizpen profesionalaren arabera oraingo aldiko urteko kontuen gure auditorian oker materialak izateko arrisku garrantzitsuentzat jo ditugunak. Arrisku horiek urteko kontuen gure auditoriaren osotasunaren testuinguruan aztertu dira, baita kontuei buruzko gure iritzia egitean ere, eta ez dugu aparteko iritzirik eman arrisku horiei buruz.

Epe luzerako hornidurak

Erantsitako memoriaren 16. oharrean deskribatzen denaren arabera, 2017-2018 denboraldiaz geroztik, klubak hornidura bat erregistratzen du, zeinaren helburua baita egungo kontratu-konpromiso saihetsezinak erregistratzea, zenbait kirol-, merkataritza- eta lehiakortasun-agertoki kaltegarritan konpromiso horietatik lortzea espero diren onura ekonomikoak gaintzen dituztenak. 2022-2023 denboraldian, obligazio horiek berriro ebaluatu dira, egungo egoera kontuan hartuta, eta ekitaldiaren amaierako zenbatekoa 38.809 mila eurokoa izan da (aurreko ekitaldian 60.248 mila euro izan ziren).

Aipaturiko betebeharrak onartzeko Zuzendaritzak gauzatu duen ebaluazio prozesua konplexua da eta etorkizunari buruzko hipotesi eta etorkizunari buruzko hipotesi eta estimazioak erabiltzea dakar.

Horregatik guztiagatik, azalduko egoera auditoriako funtsezko ezaugarritzat hartu da.

Gure auditoria-prozedurek honakoak barne hartu dituzte, besteak beste:

Zuzendaritzak burutu dituen estimazioen xehetasuna jaso dugu, eta, onarturiko aurrekontuekin egiaztatuz, estimazio horien arrazoizkotasuna ebaluatu dugu. Bestalde, gure auditoria-lanean, prozedura analitikoetan eta bestelakoetan lortutako beste dokumentazio bat ere jaso dugu.

Diru-sarreraren eta gastuen azterketa

Athletic Clubek, bere jardueratik eratorritako diru-sarrera eta gastuei dagokienez, kontratu ugari egiten ditu, hainbat izaera eta konplexutasun dituztenak, pertsona fisiko zein juridikoekin.

Deskribatutako puntu horrekiko arrisku esanguratsua barne hartzeko honako auditoria-prozedura hauek erabili ditugu:

Eman dizkiguten datuak abiapuntu hartuta, kalkulua berriro egin dugu lagin esanguratsu baterako, eta kontratuekin eta sistemako datuekin erkatu ditugu datu gakoak.

Orobat, prozedura analitikoak erabili ditugu, datuak aurrekontuekin eta aurreko urteetako datuekin alderatzeko, eta, hala zegokionean, hirugarrenen adostasuna lortu dugu.

Urteko kontuekiko Zuzendaritza Batzaren erantzukizunak

Zuzendaritza Batzaren erantzukizuna da honi atxikitako urteko kontuak onartzea, horiek fideltasunaz islatu ditzaten ATHLETIC CLUBaren ondarea, egoera finantzarioa eta emaitzak, erakundeari Espainian aplika dakioken finantza-informazioko arau-esparruarekin bat etorri; haren erantzukizuna da, halaber, urteko kontuek iruzurratiko edo erroreagatiko oker materialik ez edukitzeko beharrezko irizten dioten barne-kontrola egitea.

Urteko kontuak prestatzean, Zuzendaritza Batzaren erantzukizuna da baloratzea ea erakundeak gaitasunik duen enpresa gisa funtzionatzen jarraitzeko; funtzionatzen ari den enpresari loturiko kontuak jakinarazi behar dituzte, dagokionaren arabera, eta funtzionatzen ari den enpresaren kontabilitate-printzipioa erabili behar dute, honako kasuetan izan ezik: Zuzendaritza Batzak erakundea likidatzeko edo operazioak bertan behera uzteko asmoa duenean, edo beste alternatiba errealistatik ez dagoenean.

Urteko kontuen auditoriarekiko auditorearen erantzukizunak

Hauexek dira gure helburuak: batetik, urteko kontuek iruzurratiko edo erroreagatiko oker materialik ez daukatelako arrazoizko segurtasuna lortzea, eta, bestetik, gure iritzia jasotzen duen auditoria-txostena ematea. Arrazoizko segurtasunak segurtasun-maila handia esan nahi du, baina ez du bermatzen Espainian kontu-auditoriaren jarduera arautzen duen indarreko arautegiaren arabera egindako auditoria batek beti aurkituko duenik oker materiala, halakoren bat dagoenean. Okerrak iruzurraren edo errorearen ondorioa izan daitezke, eta materializat jotzen dira baldin eta, banaka hartuta edo agregatuta, zentzuz aurreikus badaiteke eragingo dietela erabiltzaileek urteko kontuetan oinarrituta hartzen dituzten erabakiei.

Espainian kontu-auditoriaren jarduera arautzen duen indarreko arautegiaren arabera egindako auditoria baten barruan, gure irizpen profesionala erabiltzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarrera izaten dugu auditoria osoan egin bitartean. Horretaz gain:

- Urteko kontuetan iruzurratiko edo erroreagatiko oker materialak izateko arriskuak identifikatu eta zenbatesten ditugu; arrisku horiei erantzuteko auditoria-prozedurak diseinatu eta aplikatzen ditugu; eta auditoria-ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu geure iritzia oinarritzeko. Oker materialak ez antzemateko arriskua handiagoa da iruzurraren ondoriozkoa denean errorearen ondoriozkoa denean baino; izan ere, iruzurrak berekin ekar ditzake kolusioa, faltsifikazioa, nahitako omisioak, nahita adierazpen faltsuak egitea edo barne-kontrola saihestea.

- Auditoriarako garrantzitsua den ezagutza lortzen dugu barne-kontrolari buruz, inguruabarretara egokitutako auditoria-prozedurak diseinatzeko, eta ez iritzi bat emateko erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunaz.
- Ebaluatzen dugu ea egokiak diren erabilitako kontabilitate-politikak, eta ea arrazoizkoak diren kontabilitate-estimazioak eta Zuzendaritza Batzordeak emandako informazioa.
- Ondorioztatzen dugu ea egokia den Zuzendaritza Batzordeak funtzionatzen ari den enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiltzea, eta, lortutako auditoria-ebidentzian oinarrituta, ondorioztatzen dugu ea dagoen ziurgabetasun materiala Sozietateak enpresa gisa funtzionatzen jarraitzeko gaitasunaz zalantza esanguratsuak eragin litzaketen gertaera edo baldintzei loturik. Ondorioztatzen badugu ziurgabetasun materiala dagoela, geure auditoria-txostenean nabarmendu behar dugu urteko kontuetan adierazitako horri buruzko informazioa, edo, adierazitako informazio hori egokia ez bada, iritzi eraldatua eman behar dugu. Auditoria-txostena eman arte lortutako auditoria-ebidentzian oinarritzen dira gure ondorioak. Hala ere, etorkizuneko gertaera edo baldintzek eragin dezakete sozietateak funtzionatzen ari den enpresa izateari uztea.
- Honako hauek ebaluatzen ditugu: aurkezpen orokorra, urteko kontuen egitura eta edukia (adierazitako informazioa barne), eta ea urteko kontuek irudi fidela emateko moduan adierazten dituzten transakzioak eta azpiko gertaerak.

Erakundeko Zuzendaritza Batzordearekin kontaktuan jartzen gara kontu hauei dagokienez, besteak beste: auditoriaren eragin-esparrua eta hura egiteko planifikatu den momentua eta auditoria egitean aurkitzen dugun barne-kontrolako edozein gabezia esanguratsu.

Erakundeko Zuzendaritza Batzordeari jakinarazi dizkiogun arrisku esanguratsuen artean, zehazten dugu zein izan diren esanguratsuenak oraingo aldiko urteko kontuen auditorian, eta beraz, esanguratsuentzat jotzen diren arriskuak.

Arrisku horiek geure auditoria-txostenean deskribatzen ditugu, baldin eta lege- edo arau-xedapenek ez badute debekatzen horiek publiko egitea.



MACUA AUDITORES SL



Irene Urquiaga Guinea
Bazkide-Auditorea

(Kontu Ikuskatzaileen Erregistro Ofizialeko zenbakia: 22519)

Leioan (Bizkaia), 2023ko Irailaren 26an.



MACUA AUDITORES, S.L.

2023 Núm 03/23/04361

SELLO CORPORATIVO: 96,00 EUR

Informe de auditoría de cuentas sujeto a la normativa de auditoría de cuentas española o internacional